

GUaiXe.eus



Altsasuko pilota txapelketak bihar segida izanen du



Kirolak >> 10

Etxeberri, Hiriberri eta Ziordia festak hartuta. Asteburuan bestelako ospakizunak daude Uharten, Dorraon eta Altsasun



Sakanerria >> 8

sk_r_rd_zk_?

Euskara Zerbitzuak euskaltegietan izena eman eta euskaldutzeko deia egin du. Ikasketa prozesua erdian utzi dutenei dei berezia egin die, berriro hartzera animatuz. >>5



Hondakinen kudeaketak lanpostuak sortzeko aukerak aztergai

Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatutako uda ikastaroa hartuko du Altsasuk asteartean eta asteazkenean

>>3

Sakanako artistak Tangerangren

Arakilek alkate berria du

Ruben Goñi gobernura lanera joan ondoren Grerogio Santestebanek hartu du alkatezaren ardura

>>14

>>6



Urbanen memoriarekin hitzordu bikoitza igandean >>7



Eman izena

Epea: irailak 23

aek euskara praktikoa
Sakanako euskaltegi BERRIAN

Itsasi euskaltegia

Gartzia Ximenez 46, ALTSASU

Sakanako Mank: BEKAK

948 468 258

sakana@æk.eus

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Iraia Otsoa Perez
Zorionak pottoka zure 3. urtebetetxean!!! Guztiak kutsatzen dituzu zure poztasunarekin. Ez zaitez inoiz alda. Muxu handi bat etxekoan partez.



Goreti, Adur, Aimar eta Zuhartz
ZORIONAK laukote!! Oso ongi pasa genuen zuen egunean. Segi beti bezala. Muxu asko.



ZORIONAK OIHAN!!
Gure printzea. Muxu handi bat Urdaingo familiaren partetik.



Aimar Lazkoz Ruiz
ZORIONAK guapisimo!! 5 urte dagoeneko!! Seitu guai arte bezain alai ta zoriontsu. Muxu pila familia guztiaren partetik.



Nagore Ruiz de Galarreta Comin
ZORIONAK zure 3. urtebetetxean!! Aiton-amonak, aita, ama eta osaba-izeben partez. Muxu asko.

Bazkideek deskontua

Bakarra: **4,00€**

Bazkideak: **3,50€**

irailak

4-10

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Erkudengo Ama. Irailaren 6an, domekan, 19:30etatik aurrera Altsasun barnako emanaldia.

Dantza

Etorkizuna dantza taldea. Irailaren 10ean, ostegunean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gune pareko zabalgunean.

Antzerkia

Ihabar Cabaret. Irailaren 4an, ostiralean, 22:00etan Ihabarko beheko iturri inguruan.

Al final de la carretera. Irailaren 5ean, larunbatean, 20:00etan eta 22:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. Txalo produkzioak.

Konpost-eroak. Irailaren 8an, asteartean, 17:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. Zirika Zirkus.

Proiekzioak

Dispersioaren kontrako erronkako irudiak. Irailaren 4an, ostiralean, 22:30ean Etxarri Aranazko plazan. Sare eta Sarekideak.

Mendi irteerak

Monte perdido. Irailaren 6an, domekan, Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Olaberría-Altsasu. Irailaren 5ean, larunbatean, 9:30ean Altsasuko kultur gune partetik. 82 km. Zikloturista taldea.

Itandurieta. Irailaren 6an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 57 km. Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.

Erakusketak

Festetako kartel erakusketa. Irailaren 10era arte, astegunetan 10:00etatik 14:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.



Konpost-eroak, irailaren 8an, 17:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean, dohainik.

Literatura

Etxarriko Irakurle Taldearen ikasturte prestaketa. Irailaren 10ean, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian.

Bestelakoak

Garagardo azoka. Irailaren 4an eta 5ean, ostiralean eta larunbatean, 19:00etatik 3:00etara eta irailaren 6an, domekan, 19:00etatik 00:00etara.

Zorri azoka, merkatu soziala. Irailaren 6an, igandean, 11:30etik 14:30era Etxarri Aranazko estalopean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 4an, ostiralean, 20:00etan Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Faxismoaren aurka, oroimenaren alde. Irailaren 6an, igandean, 10:30ean Urbasako saroiko lezean eta 12:30ean Otxoportillon. Etxarri Aranazko Udala.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 6an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero SAIOA

9:30etan

Gaurko gaiak:

- NUPen uda ikastaroak
- Otxoportilloko omenaldia
- Uharteko sustrai eguna

Esataria: Alfredo

beleixe

107.3 FM
www.guaixe.eus-en ON LINE

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

SAKANA

Hondakinen kudeaketa, lan sorrerako aukera



Jakinarazi zutenez, ikastaroak jakinmina sortu du eta Galiziatik 50 pertsona etorriko dira.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak heldu den astearte eta asteazkenean Altsasun eginen duen udarikastaroan ikuspuntu horretatik aztertuko da hondakinen kudeaketa

Altsasuk Ekonomia zirkularren sozio-ekonomia eta ingurumen aukerak hondakinen kudeaketa eta materia organikoari aplikatuta ikastaroa hartuko du. Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) antolatu du Sakanako Mankomunitatearen finantziarioekin. NUPeko nekazal ekoizpeneko irakasle Natxo Irigoien Iriartek Mank-en gonbitea eskertu du, "NUPek Sakanarekin zor bat zuelako, sekula ez baita bertan presakuntza saiorik antolatu".

Irigoienek ekonomia zirkularrari bultzada emateko ikastaroa dela adierazi zuen aurkezpenean. Egungo erabili eta bota ohitura aldatzea. "Ekonomia zirkularra Europako Batasuna sustatzen ari da. Kontsumitu eta eraldatzeko sistema berri bat da". Azaldu duenez, "lehengaiak kontserbatzeari lehentasuna ematen zaio, galerak egon ez daitezkeen eta berrerabil ditzagun. Horrela, jasangarritasun handiagoa sortzen da".

Ekonomia aukerak

Horregatik, "funtsezkotzat" jo ditu berrerabilpena, birziklatzea, ekodiseinua eta kontsumo arduratsua. Kontsumoaren inguruan, "txip aldaketa" aldarrikatu du: "ez izan orain arte bezala jabe garen kontsumitzaileak, baizik eta gauzen erabiltzaileak izatera pasatzea. Denen artean erabiltzen ditugu eta beste batzuk erabiltzeko uzten ditugu". Irigoienek ekonomia zirkularra aukera berriak sortzen dituela gaitzitu du: "kontsumitzeko, edo gauzak erabiltzeko, modu berri bat zabaltzen delako. Prozesu guztiak berriro diseinatzeko eta abar".

Sortzen ari diren ekimen horiek "eraginkorak, lokalak, justuak eta solidarioak izatea nahi dugu". Enpresa txikiendako aukera handiak zabaltzen direla ohartarazi du. Horretarako sormena, berrikuntza eta ekonomia zirkularrean sinestea behar dela azpimarratu du NUPko irakasleak. "Horretaz guztiaz gogoeta egiteko aukera ederra ematen du ikastaroak". Bertako eta atzerriko ekimen arrakastatsuen berri izanen da saioe-

Hondakin kudeaketa plana

Aurreko gobernuak Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integral berria egiteko prozedura martxan jarri zuen. Heldu den asteburuko jardunaldiak egun eztabaidatzen ari den plan berriari kontuan hartzekoak izanen dira.

tan. "Halakoak gure Nafarroa honetan nola ezar litezkeen aztertuko da ere".

Valorg

Europako Batasunaren proiektu horren parte da Mank. Hondakin Zerbitzuko Olatz Gardek aurkezpenean gogorarazi zuenez, haren bidez, besteak beste, "materia organikoaren kudeaketa lotuta presakuntza eta lanpostu profilak zehazteko falta dena aztertzea da". Konpost planta bateko edota auzo-konposteko boluntarioek beharrezko presakuntza zuten gogoran ikastaroa planteatzerakoan.

Egitaraua*

>> Irailak 8, asteartea.

Hondakinetan aukerak

9:00etan Jardunaldien aurkezpena. Valorg proiektuaren aurkezpena.
9:30ean Sarrera: Ekonomia zirkularra, aukeren sortzea. Hizlaria: Ignasi Puig, EnT Environment and Management.

11:30ean Esperientzien aurkezpena: Emausko Traperoak (Jose Mari Garcia) Compostela Inserta konpostatze planteskola (Ramon Plana, hondakin organikoaren tratamenduan kontsultaria). La Fageda, inguruko ingurumen, ekonomia eta sozialen faktoreetan oinarritutako granja baten kudeaketa (Belen Puyuelo, Beta zentro teknologikoa, Uvic)

Sakanako tokiko esperientziak (ekolo, paletak, hiri-baratzak).

14:00etatik 16:00etara Bazkaria, paella.

16:00etatik 19:00etara Inguruko eredueta bisita:

Emausko Traperoak (Iruña).

Varazdin fundazioa, Zentzumenen Parkea eta abikonpoa.

17:30ean Konposteroak antzezlan. Zirika Zirkus. Iortia kultur gunean.

>> Irailak 9, asteazkena.

Hondakinen kudeaketa esperientziak ezagutzuz

9:00etan Sarrera: Ekonomia zirkularra hurbiltzen aitzindaria: Lorearen esperientzia, 80ko hamarkada. Hizlaria: Alfonso del Val, ingurumen kontsultaria.

9:30ean Hiri hondakinen kudeaketa beste tokietan: ...tik zer ikasi dezakegu? Katalunia. Francesc Giro, Kataluniako Hondakinen Agentzia.

11:30ean Segida:

Italia. Michele Giavini, CIC, Italiako konpostatzaileen elkarte.

Galizia. Piñorko Udala. Fraga Civeira, alkatea.

14:00etatik 16:00etara Bazkaria, Paris 365.

16:00etatik 19:00etara Mahai-ingurua: Eta Nafarroan zer egin dezakegu?

*Bi egunetan birziklapenari eta berrerabilari buruzko erakusketa izanen da Iortia kultur gunean, asteartean kanpoko aldean eta asteazkenean barruan.

Sakanako Garapen Agentziako Iker Manterolak gogorarazi du materia organikoaren kudeaketak zein lanpostu sor ditzakeen ere aztertzen ari direla. Manterolak ekonomia zirkularrak tokiko enpresa txikiei aukerak zabaltzen dizkiela nabarmendu zuen. Ikastaroak "sakandarrei ideiak eman diezaieke eta etorkizunera begira zein bide egon daitezkeen. Arrastoak eman ditzake bide horretan lanean hasteko".

Izen ematea

cursosdeverano@unavarra.es helbidera mezua idatziz behar da, izen-abizenak, nortasun agiria, ikastaroaren izena, bazkarietara joan nahi den edo ez adieraziz. 30 euro baliotu ikastaroak (bazkari bakoitzak 20 euro). Sakanako langabetuendako dohainik izanen da. Unibertsitateko ikasleek aukera askeko kreditu bat jasoko lukete egitarauaren %90era joanez gero. 15 orduko iraupena du. Informazio gehiago www.sakanagara-tzen.com edo www.unavarra.es web orrietan.

BIKAIN GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea

FLORES S.L.

Nafarroako berezko txistorak izan bat du

Txistor ekologikoa

Uztubarr industrialdea - Tel. - Faxa: 948 460 499 - 61053 211



Nonerabili

JON CORDON TAXIA

IRURTZUN

%10eko deskontua.

JAVIER AIZPUN HARATEGIA

UHARTE ARAKIL

50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

UHARTE GAZTA

UHARTE ARAKIL

40 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

BERGARA CENTRO OPTICO

AGURAIN

Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan % 10eko deskontua.

JUGA TAILERRAK

ARBIZU

%10eko deskontua mantenu piezetan, %5eko deskontua gurpiletan.

ENERITZ ILEAPAINDEGIA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

EKIN

ALTSASU

100€ko erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA

ALTSASU

%10eko deskontua obra berrien eta erakuntza berri en proiektuetan, %20a ziurtagiri energetikoan eta energia fakturaren irakurketa eta analisisa doan.

IOSUNE MARAURI

ALTSASU

Bakarko saioetan %10eko deskontu.





Xabier Reparaz Extramiana

astekoa

Artzai Egunetik lanera

Akabo oporrak. Uharteko Artzai Egunak zapore gazi-gozoa utzi ohi digu sakandarroi. Festa ederra eta maitea, baina baita oporren amaieraz ohartarazten diguna. Han ikusi ohi dugu elkar opor eguzkitsuetatik bueltan, bakoitzaren larruazalaren iluntasunaren arabera jakin dezakegularik itsas

bazterren batean eguzkitan igarotako egun kopurua zenbatekoa izan den. Zenbat eta ilunago, arik eta opor luzeagoak izan ditugunaren seinale.

Uhartan egon nintzen igandean eta egindako bueltak argi utzi zidan zein den festa honen zergatia. Sakandarra oporren lasaita-

sunetik atera eta lanerako prest jartzea. Artisau postuetan lanean dabilzan gizon eta emakume horiek lanean ikusi nituen igandea zen arren. Forjari eta kaikugile edo artile ehuleak hantxe lan eta lan ikusteak psikologikoki prestatzen gaitu gu ere epe motzean lanean hasteko. Gazta postuen

artetik, gazta apurrak probatzen goazenean, hilabete bukaeran jasoko dugun soldatan bezala, gazta ikusi bai, baina apurrak jasoko ditugula argi uzten digute. Aurrerago ardi latxak itxituretan sarturik ikustean, lantokia datorkigu burura, bai eta txakur arraza desberdinen erakusketan

entzun daitezken zaunkek, nagusiaren errietak gogorarazi. Laster ditugu begi bistan ardiak biluzten dituzten ile mozteak, bankuak gogora. Arratsaldean artzain txakur probak, ardiak itxituretan sartzeraz behartuz, agian gure abuztuko askatasuna amaitu denaren seinale. Segi lanera!

barrutik kanpora

Zer jan, hura izan

Munduko hainbat herrialde ezberdinetatik bidaiatzeko aukera izan dugu (Frantzia, Italia, Alemania, Holanda, Finlandia, Maroko, AEB, Txina, India) eta elikadurak herrialde baten izaera definitzen duela argi daukagu.

Adibidez, AEB "janari azkarra" izeneko filosofiarekin lotzen dugu. Horren adibide berritzailea "Food Truck" da. Ingeleratik euskarara itzuliz gero, kalean elikadura saltzen duten furgone-

tak esan nahi du. Hauek, bai San Frantzisko zein New Yorkeko kaleetan aurkitu ditzakegu eta Europara ere moda hau iritsi da, Londresera adibidez. Hasiera batean "Food Truck"-ek eskaintzen zuten janaria ez zen oso kalitate onekoa, baina, gaur egun, aldiz, askok kalitate bikaineko elikadurak eskaintzen dizkigute.

Euskal Herriari dagokionez, momentuz ez dago merkatu hau erregulatzen duen legedirik eta

horrek, ekintzaile askoren asmoak gelditu mantentzeraz behartzen ditu. Baina ekintzaileak zain dardede merkatua erregulatu eta gure hiriburu zein herrietan "Food Truck"-ak martxan jartzeko.

Aldiz, Sakanan eta gure herrietan ez ditugu "Food Truck"-ak behar kalitatezko elikadurak erosi eta jateko. Gure bailarako herri askotan urtean zehar elikadurak erosteko gune garrantzitsuak ditugu eta horietako asko dato-

rren hilabetetan datoz (Irurtzun-Arakilgo azoka, Etxarriko Ferietako azoka, Altsasuko Ferietako Azoka, eta abar). Aurreko igandean, Uharteko Arakilen Artzain Eguna ospatu zen eta bertan, Sakanako zein Nafarroako elikagai eta produktuak dastatzeko eta erosteko aukera izan genuen.

Merkatu hauek tokiko garapena sustatzeko ezinbestekoak dira, tokiko produktoreei zuzeneko salmenta errazten baitzaie. Argi

eduki behar dugu, artikuluen tituluak esaten digun moduan, jaten duzunaren arabera izango zarela zu.

Beraz, Sakantzen Saretik datozen hilabetetan eskualdean izanen ditugun tokiko ekoizleen merkatuetan parte hartzea sustatu nahi dizugu. Eskualdearen etorkizuna tokiko elikagai ekoizleetan ere badagoelako.

Gu bertan izanen gara!

Sakantzen Sarea

gora/behera



Artistak

Lehenik azoka antolatze-ko elkartu ziren. Taldeak atzerrira salto egin du. Bidea luzea izan dadila.



Erdizka

Hala gelditu beharrean hobe prozesua bukatzea; hobe guztiz euskalduntzea.

objektibo tik



Gabarra Lakuntzan:

Bartzelonaren kontra Supercopa irabazi eta gero, non atera zuten Athletic zaleek gabarra? Bilbon? Ez! Lakuntzako festetan! Lakuntzako zale txuri-gorriak gabarra gainean eman zioten buelta herriari, lortutako "kopa" erakusten. Parranda ederra egiteko aitzakia bikaina.

objektibo tik: gutunak@guaixe.eus



Nekazaritzan eta sukaldaritzan ari:

Arakilgo Udaltzaingaren Kulturako sailaren proposamenak bere egin eta 15na arakilgo nekazaritzako bertsotzaile eta bizirauteko sukaldaritzako ikas-tarotetan trebatzen aritu dira. Azken horiek, irudian, Iñaki Gonzalezen begiradapean prestatutako jakiak afaldu zituzten gero.

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Garazi Barandalla Kanpos
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK 

Mank
 s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

APAIZ BERRIA: Juan Antonio Apezetxea Eskudero da Uharte Arakil, Arruazu eta Larkuntzako apaiz berria. Garagarriaren 21ean apaiztu zen eta artzapezpikuak hiru

parrokia horien ardura eman dio. Bestalde, osasun eta adinduen pastoraleko taldeko kide izendatu dute Jose Manuel Nazabal.

sakanerria >>

>>

SAKANA

Sakandarrak gobernu egituran

Agorrilean barna, Nafarroako Gobernu berria bere egitura zehazten aritu da. Eta egindako ardura postuetarako izendatuen artean hainbat sakandar daude. Haietako hiru zuzendari nagusi izanen dira. Garapen Ekonomikorako Departamentuan Pilar Irigoien Ostiza urdiaindarra ari da, Ekonomia eta Enpresa Politikaren eta Lanaren zuzendari nagusia dena. Departamentu berean dago Maitena Ezkutari Artieda etxarriarra, Turismoaren eta Merkataritzaren zuzendari nagusia. Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuan, berriz, Ruben Goñi Urroz etxeberriarra ari da lanean, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaile gisa. Bestalde, Lakuntzan familia duen Pello Pellejero Goñi kazetaria gobernu komunikazio zuzendari nagusia da. Azkenik, Josefina Arregi klinikari urteetan lan egin duen eta makina bat sakandarrek ezagutzen duten Ines Frances Autonomia eta Pertsonen Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari-kudeatzailea da.

Euskara “erdizka” ez uzteko deia

Euskalduntze prozesua bukatu ez dutenei zuzendu die eta Nafarroako Udaletako Euskara Zerbitzuek

Nafar guztiei euskara ikastera animatzeko deia egin die Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Nafarroako hainbat udaletakoekin batera. Horretarako “*No me dejes a medias / Ez utzi erdizka*” leloa aukeratu dute. Izan ere, euskara “erdizka” uzten duten horiei zuzendu nahi zaizkie bereziki. Hau da, etxean, ikastetxean, euskaltegian euskalduntzen hasi, baina ikasketa prozesua behar baino lehenago utzi, edota hizkuntza erabili ez dutelako, erdibidean gelditu direnei. Euskara “erdizka” ez uzteko eta hizkuntza ikasi eta gozatzeko deia egin dute.

Pertsona helduak euskalduntze eta alfabetatze ikastaroetan izena emateko kanpaina hilabeteguztiaz martxan izanen da. Lorena Arangoa aktore irurtzundarra protagonista duen bideo baten bidez zabalduko dute mezua. Hura www.nomedejesamedias.eus web orrian ikus daiteke. Horrekin bate-



Lorena Arangoa da Euskara Zerbitzuen kanpainako protagonista.

ra, 51.000 esku-orri eta 800 kartel zabalduko dira. Haietan Nafarroako euskaltegien datuak, loturak eta kanpainaren hainbat xehetasun aurki daitezke.

Euskaltegiak

Euskara Zerbitzuetatik gaztigatu dute Nafarroan euskaltegien sare zabal eta espezializatua dugula,

nonahi, etxetik hurbil. Haien eskaintza erakargarria eta askotarikoa dela nabarmendu dute, beraz, “erraz aurki daiteke edonoren behar eta gustuetara hobe- kien egokitzen den aukera”.

Sakanan, AEK-ren Itsasi euskaltegian izena emateko epea irailaren 23ra arte izanen da zabalik. Klaseak Irurtzunen, Etxarri Ara-

Diru-laguntzak

Mank-eko Euskara Zerbitzuak euskara ikasten dutenendako diru-laguntza deialdia egiten du, gutxi gorabehera matrikularen %50 ordaintzeko adina emanez (beti ere, eskaera kopuruaren arabera). 2014-2015 ikasturtean 115 sakandarrek jaso zuten diru laguntza. Horretarako informazioa 948 464 840 edo 948 464 867 telefonoetan eta euskara@sakana-mank.com postan jaso daiteke.

natzen eta Altsasun emanen dituzte; baita taldea sortzen den Sakanako beste edozein herritan ere. Informazio gehiagorako Altsasuko Gartzia Ximenez kaleko 46. zenbakitik pasa, 948 468 258 telefonora hots egin edo sakana@aek.eus e-postara idatzi. Euskara ikasi nahi dutenek Guaixerekin batera banatuko den esku-orria bete eta Itsasi euskaltegian edo Mank-en egoitzan utzi dezakete.

DESKONTU ZUZENAK

Moztu eta dendan trukatu

%30eko beherapena eguzkitako betaurrekoetan irailan zehar.

ARGIRO OPTIKA ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua udazken-neguko kolekzio berrian. irailan zehar.

JOSELEN MODA ALTSASU

Errebisioa doan irailan zehar.

ETXARRI HORTZ KLINIKA ETXARRI ARANATZ

%8ko deskontua: ikasteko mahaiak, apalak, aulkiak, habiak eta gazte koltxonetak. irailan zehar.

COMERCIAL ETXARRI ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua poltsetan. irailan stockean daudenak soilik.

LA CIGÜEÑA ALTSASU

%10eko deskontua jostailuetan. irailan zehar.

KAXETA LIBURUDENDA ETXARRI ARANATZ

SAKANAKO DENDARI, OSTALARI ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

» Altsasu

Udalak lanetarako 425.900 euro bideratuko ditu

Altsasuko Udalak joan den urteko kontuak itxi eta gastu orokorretarako 1,7 milioi euroko diruzaintzako gerakina du. Ogasun Batzordean erabaki da dirutza horretatik 425.900 euro hainbat lanegiteko bideratzea. Aurreikusitako lanak udaleko langileek eginen dituzte eta langileak ere kontratatuko dira. Bestalde, Udalak Toki Administrazio Departamentuko arduradunei bilera eskatuko die. Zumalakarregi plaza eta inguruko kaleen zoruak eta sareak berritzeko lanak aurrera eramateko finantziarioz hitz egin nahi dute. Bestetik, diruzaintzaren gerakinaren beste zati bat epailetatik eratorritako diru konpromisoak ordaintzera bideratuko du udalak: 2006ko Lezaldeko urbanizazioagatik Coyserrri 114.629 euro ordaintzeko agindu zuen epai batek, eta, bestetik, haur eskolako lanen eteteagatik Banco Popularri 85.471 euro ordaindu zaizkio.

Sei lan

Zelandieskola. 37.500 euro. Eraikinaren itajurak konpondu, kanpo fatxadaren behe partea margotzea eta patioetan putzurik ez sortzeko drainadura hobetzea. Beste behar batzuei erantzuteko, udalak, Hezkuntza Departamentuarekin bildu nahi du.

Hilerria. 63.000 euro. Fatxada nagusia eta ezkaratza margotzea, nitxoan inguruko zoruan asfalttoa zabaldu eta tresnen gelaren garbiketa.

Intxostiapunta plaza. 10.000 euro. Hegoaldean eta Erkuden kale aldean 35 metro hesi jartzea. Beste guztia zabalik geldituko litzateke.

Foru plaza. 48.000 euro. Urtzi taberna parean zorua oso kaltetuta dago eta putzu handiak sortzen dira. 150 m²-tan harlauzak jaso, oinarria jarri eta 10 cm-ko harlauza berriak jarriko dira, posible den heinean egun-goak berrerabiliz.

Otadiko Santo Kristo plaza. 6.000 euro. Autoen pasabidean dauden galtzadarriak kendu eta 28 metro luzean eta 4 metroko zabalera porlana zabaltzea. Aurreko urteetan egindako lanari segida emanen zaio horrela.

Kaleen zolatzea. 61.300 euro. Zirkulaziorako okerren dauden kaleetako zoruak konponduko dira: Gipuzkoa kalean 1.660 m² (Erkuden eta JM Ezkurra kaleen artean); Ameztian 132 m²-ko zatia, San Pedrorako bidean instituturako eta ikastolarako bihurtzeko 285 m²-ko zatia; Gurutze Saindua eta Zubeztia kaleen ondoren egiteko dagoen 108 m²-ko zatia.

»

Munduko Arrozak Altsasun

Festetako asteartean, aniztasunaren festan, altsasuarrak arroz jendaurrean prestatzera animatu dituzte

Altsasuko festetako azken egunean, 11:00etan, jarri dute hitzordua, Zubeztia kiroldegian. Han eginen da Munduko Arrozak. Ekimenak pertsonak adina arroz egiteko modu daudela erakutsi nahi du. Hala, hango eta hemengo arrozak dastatzeko aukera izanen da. Izan ere, herria kulturetan anitza da eta arroza prestatu bitartean, parte hartzen, altsasuarrak elkar ezagutzeko aukera emanen du. Pertsonak ezberdinak izanik ere arroz aleak bezain berdinak gairela ikusteko aukera da. Jai gunea Altsasuko kultur aniztasunaren isla izanen da herritarren parte hartzearekin. Senegal, Maroko, Altsasu eta beste hainbat tokietako arroza (edo beste edozer) prestatzen ikusi eta errezetak ikasteko aukera ere izanen da. Bitartean henna tailerra eta Youssef Kejji bere bere abeslaria kantuan izanen dira, bestelakoekin batera. Guztia aniztasunaz gozatzeko. Herri mugimenduaren ekimen izanen da Munduko Arrozak antolatzea. Eta bat egin dute Mank-eko Immigratio Zerbitzuak eta Burunda mendebaldeko Oinarritziko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak.

648 070 710

Izena emateko telefono horretara hots egin.

» SAKANA

Oroimenarekin hitzordu bikoitza Urbasan

Igandean 1936an eraildakoak gogoan izanen dituzte; 10:30ean, saroiko lezean eta, 12:30ean, Otxoportillon

Etzi 79 urte beteko dira Etxarri Aranazko kartzelatik bost gizon atera eta Urbasara hiltzera eramane zituztela; Clemente Araña, Paulo Garcandia, Andres Gonzalez, Antonio Maiza eta Narciso Artola UGTko kideak ziren. 1936ko irailaren 6ko gertakari haiek gogon, azken 35 urteetan Etxarri Aranazko Udalak eta senide batzuk haien oroimenezko ekitaldia antolatu dute. Aurten, 35. edizioa, ekitaldia bikoitza egin da. Urte luze-ko ikerketaren ondoren eraildako etxarriarren gorpuak Otxoportillon beharrezan Urbasako saroiko leze batean zeudela jakin delako. Horregatik, bi leku horietan oroimen ekitaldi bana izanen da.

Lehena saroiaren izanen da, 10 eraildako hartzen dituen lezearen inguruan. Haietako bederatzirekin identifikazioa Balbino Garcia de Albizu Jimenezekin ikerketa lanei esker egin da eta bera izanen da ekitaldian hitza hartuko duena. Hari ikerketan lagundu zion Amaia Urkijo izanen da hizlaria Otxoportillon. Batean eta bestean, ez da lore eskaintzarik faltako.



Igandean Urbasako ekitaldiak gerturatzeko deia egin dute antolatzaileek.

Lantaldea

1936an gertatutakoa eta historia oroimena landu, gertaerei buruzko hausnarketa zabalagoa egin eta lan ildo batzuk abiatzeko asmoz, lantaldea sortu berri da Etxarri Aranazten. Halajakin arazi du Eneka Maiz Ulaiar alkateak, aldamenen taldeko kide batzuk zituela. "Hasiberriak gara. Lantaldea eratzeari gaitz eta nahi duten guztiei parte hartzeko deialdia egiten diegu. Taldearen helburuak, asmoak eta planak zehazte garaian gaude".

Igandeko ekitaldiarekin batera beste bi data ere aurreratu dituzte. Lehena irailaren 19an, larunbatean, 11:30ean, izanen da. Garcia de Albizuk eta Urkijok duela 79 urteko gertaerei buruzko informazioa eta hezurduaren identifikaziorako ikerketaren nondik norakoak azalduko dituzte hitzaldi batean. Bigarrena, lastailaren 31n izanen da. El Drogas eta La (Des) Memoria Band ariko dira Etxarri. 36an eta Alzheimerraren oinarritutako kantua emanen dituzte.

» Altsasu

Sexu erasorik gabeko festen alde

Emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpenetako bat dira sexu erasoak. Emakume izate hutsagatik euren integritatearen kontra eta haien independentzia ukatzen duten jokabideak dira: irainak, ukitzeak, jazarpena, baita kolpeak eta bortxaketak ere

Altsasuko Udaleko Emakumearen eta Berdintasunaren Batzordeak sexu erasorik gabeko festak nahi dituela azaltzeko jendaurreko ekitaldia egin eta kanpaina aurkeztu zuen herenegun. Helburua, batzordeko buru Arantza Bengoetxeak azaldu zuenez, "altsasuarrak festetan begirunez eta berdintasunez jokatzeko da, inola-

ko eraso sexistarik gabe".

Egiteko hori erakundearen eta herritarren elkarlanean lortzeko esparruak azaldu zituen. Batetik, "sexu erasoak ezabatzeko ezinbesteko jotzen dugu instituzioen lana. Gure kasuan, udalaren lana prebentzioa, harrera eta salaketa egitea da." Baina sexu erasoaren kontra herritarren lana ere "ezinbestekotzat" jo zuen. Bengoetxeak azaldu zuenez, emakumezkoen lana da: "argi izatea guk baino ez dugula erabakitzen zer gustatzen zaigun, zerk gogaitzen gaituen eta zerk erasotzen gaituen". Gizonez-



Kanpainako bideoan altsasuar ugariak parte hartzen dute.

koen egitekoa, bestetik, "erasoen ere esatea" litzateke. kide ez izatea eta ezetza ezetza da +www.guaixe.eus

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

JAVIER ZELAIA
Pintura eta igeltsua
Zaharberritzeak
eta obra berria
Barneko dekorazioa
Aurrekontua eskatu
konpromezurik gabe
648 143 615 · Altsasu

nerecenoz
nutrición
Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatu (Nafarroako Unibersitatea)
Pisua kontrolatzeko dietak:
· Argaltzeko dietak
· Pisua hartzeko dietak
· Mantentze dietak
· Haurdunaldi dietak
Patologia ezberdinetarako dietak
Kirol-elikadura
Elikadura arazoak
Nutrizio-hezkuntza
info@nereacenoz.com
nereacenoz.com
Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan
Estafeta 16, atzea · Lakuntza
(Bostekoa masaje zentroan)



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

Oroigarriak



Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275

Joxe Mari Berastegi Uharte

(Unanun, 2015eko abuztuaren 4an zendua)



Jaso ditugun maitasun adierazpenak eta doluminak bihotzez eskertzen dizkizuegu.

Berastegi Razkin familia

Txaro Cerdan

II. urteurrena



Gure ondotik joan zinen, baina ez gure bihotzetik.

Etxekoak



GRUPO
Funeraria VASCONGADA
Ehorzketak
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: **943 106 222 • 943 376 980**

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIRUZINA

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).
Argazki bakoitzeko 3€.
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.eus

Lehiaketa

Argazki lehiaketa. Nafarroako Landa Turismoko Federazioak I.go Argazki Lehiaketa antolatzen du Nafarroa bisitatzeko dutenei zuzenduta. Argazkiak e-mail bidez bidali daitezke info@turismoruralnavarra.com helbidera edo zuzenean www.turismoruralnavarra.com web orrialdera igo. Azken horretan dago lehiaketari buruzko informazio guztia.

Oharrak

Odol-emaileak. Irailaren 16an eta 23an, Etxarri Aranatzeko, arratsalde; 24an Olaztin eta Ziordin arratsalde eta 25ean Olaztin, goizez.

Autoenplegurako laguntza.

Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua.

Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.

Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.

Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza
euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrantea zabaldu du.

Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan.

Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.

Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixetxartela.

50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko.

Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda.

Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarritako hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarrik eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arrosa, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informazioarako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko

boluntarioen kanpaina.

Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jaso direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua

Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzua martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionali, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenean Etxarri Aranatzeko, astearteetan Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazio@sakanamank.com posta elektronikoa.

Gazteendako sexualitate aholkularitza.

Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaleetik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide!

Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, asteen behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informazioarako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak

JAIOTZAK

- **Suhar Irigoien Villanueva**, ekainaren 6an Arbizun.
- **Aya Benali Bouazzi**, uztailaren 7an Irurtzun.
- **Laida Zufiaurre Beltza**, uztailaren 11n Etxarri Aranatzeko.
- **Uma Mauduit Senar**, abuztuaren 9an Etxarri Aranatzeko.
- **Xabier Olmedillo Pereda**, uztailaren 26an Arbizun.
- **Amalia Maria Geanta**, uztailaren 30ean Irurtzun.
- **Jare Martin Mendinueta**, uztailaren 31n Arbizun.
- **Eider Leitza Mendinueta**, abuztuaren 2an Arbizun.
- **Pello Azpiroz Razkin**, abuztuaren 5ean Lakuntzan.
- **Saul Alves Laura**, abuztuaren 7an Altsasun.
- **Inar Albarrazin Laino**, abuztuaren 3an Etxarri Aranatzeko.
- **Urtzi Hernaiz Olló**, abuztuaren 14an Lakuntzan.
- **Alain Bakaikoa Uhalde**, abuztuaren 14an Arbizun.
- **Unai Marañon Lakuntza**, abuztuaren 18an Olaztin.
- **Bahaa Eddn Missaoui**, abuztuaren 23an Irurtzun.

behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

• Yassine Najmi

abuztuaren 24an Lakuntzan.

EZKONTZAK

- **Julian Navarrete Cuevas eta Evangelina Tatiana Benzoni Olivera**, abuztuaren 8an Irurtzun.

HERIOTZAK

- **Maria Mercero Armendariz**, uztailaren 21ean Unanun.
- **Petra Santano Morales**, uztailaren 29an Altsasun.
- **Carmen Lopez Gonzalez**, abuztuaren 1ean Irurtzun.
- **Jose Mari Berastegi Uharte**, abuztuaren 4an Unanun.
- **Jose Luis Lakuntza Artieda**, abuztuaren 14an Lakuntzan.
- **Amparo Alba Ruiz**, abuztuaren 25ean Altsasun.
- **Felisa Berastegi Lizarraga**, abuztuaren 30ean Unanun.
- **Manuel Gonzalez Sanchez**, abuztuaren 31n Irurtzun.
- **Honorata Zubiria Ostiza**, abuztuaren 31n Urdiainen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zerbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

FUTBOLA

ETXARRI FEDERAZIO KOPATIK KANPO:
Etxarrik Federazio Kopako partida jokatu
zuen Beti Onaken kontra. Xabatek Etxarri

aurreratu zuen, baina Betik berdindu zuen.
Penaltietan Beti Onakek egin du aurrera txapelketan. Ligari irailaren 13an ekinen diote.

Pilota

Ansa finalera eta Bakaikoa, Ongay eta Gorriti lanera

46. Otadiko Kristo Deuna Torneoko lehen finalerdian Ansa altsasuarra finalerako sailkatu zen. Bihar Bakaikoa, Ongay eta Gorritiren txanda da

46. Otadiko Kristo Deuna Txapelketa (2. finalerdia)

Larunbatean, 22:00etan, Burunda pilotalekuan

Eskolak: Erdozia (Etxarri) / Imaz (Arbizu)

22 urtez azpikoak: Bakaikoa-Martija / Laso-Olaizola
Seniorrak: Ongay-Linzoain / Azpiri-Gorriti



Arrieta-Imaz eta Laso-Iholdi, aurreko larunbateko lehen finalerdian. UTZITAKOIA

Altsasuko Sociedad Deportiva Alsasua, atzera ere, Otadiko Kristo Deuna Torneoa antolatuta du, afizionatu eta amateur mailako torneo ezaguna, hainbat entitate eta enpresen babesarekin batera. Aurten txapelketako 46. edizioa jokatzeko ari da. Aurreko larunbatean lehen finalerdia jokatu zuten, eta bihar bigarrenak jokatu dira. Final handia, ohienez, Altsasuko festetan jokatu da, irailaren 11n zehazki, ostiralarekin, 22:30ean, Burunda pilotalekuan.

Lehen finalerdian, hasteko, Pilotajauku pilota eskolako erakustaldia izan zen. Reparazi eta Iri-goieni 8-12 irabazi zieten Olabidek eta Ulaiarrek. Ondoren hasi zen txapelketa. 22 urtez azpikoan Ansa altsasuarra Otadui bizkaitarrek osatu zuen bikoa. Partida oso lehiatua, Mitxelena eta Martinez nafarrak 22 eta 21 hartu zituzten menpean 67 minutuko eta 403 pilotakadako partidari.

Seniorretan Laso etxarriarraren aritu zen Iholdi uharterra eta bi nafarrek Arrieta eta Imaz gipuz-

koarrak izan zituzten aurkari. 12ra berdindu ondoren gipuzkoarrak alde ateratzen hasi ziren eta bukeran erraz gailendu ziren, 14-22.

Bakaikoa eta Gorriti lanera

Bihar bigarren finalerdia dago jokotik. 22 urtez azpikoan Bakaikoa etxarriarrak Martijarekin osatu du bikoa, Laso eta Olaizolaren kontra aritzeko. Seniorretan Ongay satrustegiarraren eta Linzoainen kontra ariko dira Azpiri bizkaitarra eta Gorriti uharterra. Sakandarre zorterik onena opa diegu.

Ezkurdia-Merino II.a Lekeitioko Finalera

Asteazkenean Lekeitioko San Antolin Feriako lehen finalerdia jokatu zen. Joseba Ezkurdiak eta David Merinok sekulako erakustaldia eman zuten, faborito ziren Irujori eta Irustari 12 eta 22 irabazi eta gero. Merino II.a izan zen

partidako jaun eta jabe. Aldiz, galtzaileek 16 pilota galdu zituzten 49 minutu iraun zituen neurketan.

Igandeko final handian gaurko finalerdian gailentzen den bikoa izangodute aurkari: Urrutikoetxea-Untoria edo Olaizola II.a-Zabala.

Ezkurdia-Zubietak txapelkun Gasteizen



Joseba Ezkurdiak eta Aitor Zubietak bikote indartsua osatu zuten Gasteizko Andre Mari Zuria-ren Binakako Torneoa. Final handian sakandarrak Aitor Olaizola eta Alvaro Untoriaren kontra 13-22 gailendu ziren, Gasteizko txapela preziatua jantzi. Agorriaren 16ko Zarautz Hiria Torneoko finalean, aldiz, 22-8 irabaziz Oñate eta Beroizek Altuna Illari eta Aitor Zubietari. Bestalde, agorriaren 15ean Burlatako Udala Torneoko finalak jokatu ziren. Lau terdian Joanes Bakaikoa etxarriarrak lezio ederra eman zion Dorronsorri, 22-3 irabazi baitzuen etxarriarrak.

Pilota Goxua Txapelketa Altsasun

Altsasuko Gazte Asanbladak Bikotekako Pilota Goxua Txapelketa

antolatuta du irailaren 18tik urriaren 9ra, Burunda Pilotalekuan. Bikotek irailaren 9a arte dute izena emateko epea (646 772 899 edo altsasukogazteasanblada@gmail.com).

Saskibaloia

Iñigo Zabalo Planasa Navarran



Planasa Navarra taldea. Iñigo Zabalo altsasuarra beheko ilaran dago, eskuinetik hasita lehena. PLANASA NAVARRA

Planasa Navarrak lagunarteko partida jokatu du irailaren 8an Altsasun, Iraurgi SB taldearen kontra

Iñigo Zabalo saskibaloia jokalaririk altsasuar gaztea Planasa Navarra taldearekin ariko da 2015-2016 denboraldian. Altsasuarrek 19 urte ditu eta 1,85 metroko altuera du. Base postuan jokatzeko du. Zabalo Altsasuko Saskibaloia Taldean trebatu zen, eta gero Zizurko Ardoi taldean ibili zen. Aurreko urtean Planasa Navarra taldearekin harremana izan zuen, eta denboraldi honetan taldean ariko da hasieratik, ADECCO Oro mailan, estatuko saskibaloiko bigarren mailan. Altsasuarra ilusioz beteta dago, eta nahiz eta jokatzeko

aukerak garesti egon, ahalik eta lan gogorrena egiteko asmoa du, ikasi eta kantxan tokia egiteko.

11 jokalarik daude plantilan: Iñigo Zabalo, Quique Garrido, Miki Servera, Guille Justo, Joaquín Bonhome, Iñaki Narros, Sergio Rodríguez, Iván García, Serge Konan, Óliver Arteaga eta Maodo Nguirane. Aurre denboraldian Pablo Lopez eta Iñigo Zabalegi gazteak arituko dira talde nagusikoekin batera, guztiak Sergio Lamúa entrenatzailearen esanetara. "Aurreko urteko 5 jokalarik jarraituko dute eta taldeak oinarri sendoa du. Horrela, berriek taldearen dinamikan sartzeko errazagoa izango dute. Pozik

gaude" dio entrenatzaileak. Taldearen helburua play-offetara sailkatzea da, aurreko denboraldian lortu zutena. "Badakigu garesti dagoela, soilik 9 talderendako tokia baitago play-offetan. Baina borrokatuko dugu" gaineratu du entrenatzaileak.

Aurre denboraldian 6 partida jokatu ditu Planasa Navarrak, tartean ACB mailako Laboral Kutxa Baskoniaren kontra. Lagunarteko partida horietako bat Altsasura helduko da asteartean, irailaren 8an. Hain zuzen ere LEB Plata mailako Iraurgi SB taldearen kontra ariko da Planasa Navarra, Zeladín. Liga lastailaren 4an hasikoda.

Triatlota

Triatleta gazteak bikain

Alain Razkin eta Egoi Lakuntza garaile izan ziren Aranguren eta Unai Villalobos Trizurkon

Agorriaren 23an 13. Arangurengo Triatlota jokatu zen. Sakana Triatlota Taldekoak ongi ibili ziren. Aurrebenjamin mailan Alain Razkin lakuntzarrak gailendu zuen, bere taldekide Ekain Imazen aurretik. Benjamin mailan Egoi Lakuntza izan zen irabazlea. Eta kimuetan Xabier Borrega 7.a sailkatu zenez gizonen eta Nahia Imaz 11.a emakumezkoetan.

VILLALOBOS GARAILE ZIZURREN

Igandean III. Trizurko Akuatlota jokatu zen Zizurren. Helduen mailan 2,5 km korrikari, 900 metro igerian eta 2,5 km korrikari egin behar izan zituzten. Arenas klubeko Ander Sanchez gailendu zuen (31:17). Sakana Triatlota Taldeko Juan Luis Maiza 11.a iritsi zen helmugara (38:57). Bestalde, junior eta kadete mailan Iñigo Maiza etxarriarra hirugarrena sailkatu zen (14:39).

Kategoria txikiagoetan, aurrebenjamin mailan Ekain Imaz 5.a sailkatu zen, kimuen mailan Nahia Imaz 11.a eta haurren mailan Unai Villalobosek irabazi zuen proba.

Aizkora

Resano, Euskal Herriko 3. Mailako finalera

Beltza finaletik kanpo geratu zen

Agorriaren 23an Euskal Herriko 3. Mailako Aizkora Txapelketaren 2. kanporaketa jokatu zen Gorritin. Bi segundo eskasengatik Julen Alberdi nagusitu zitzaion (9:46) Iban Resano dorrobarrari (9:48). Finalean izangoda Resano. Agorriaren 11n, lehen kanporaketa hartu zuen Leitzak. Goizeder Beltza finaletik kanpo geratu zen, 5.a sailkatu baitzen (11:41).

LAKUNTZAN 2. MAILAKOIA

Lakuntzako festetan Euskal Herriko 2. Mailako Txapelketako kanporaketa jokatu zen. 12 aizkolarien artean sei azkarrenek finalerako txartela lortu zuten: Iker Vicentek (16:02), Ruben Saralegik (16:17), Jesus Mari Mujikak (16:38), Luis Txapartegik (16:39), Aratz Mugertzak (16:54) eta Arkaitz Jauregik (17:26).

NAFARROAKO 3. MAILAKOIA

Abuztuaren 15ean Nafarroako 3. Mailako Aizkora Txapelketako finala irabazi zuen Oier Kañamaresek (7:45). Josu Agirre arbizuarra bosgarrena sailkatu zen (13:57).

Txirrindularitza

Josu Etxeberria jaun eta jabe Lakuntzan

Iturmendierra Los Arcoseko eta Lakuntzako lasterketan gailendu da eta Nafar Kirol Jolasetako txapelketa irabazi du

Lakuntzako festetan jokatu zen kadeteen mailako XXV. Lakuntzako Saria-Sakana Fundizioa Sari Nagusia. Probako protagonista Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko Josu Etxeberria izan zen. Iturmendiko txirrindulariak proba irabazi zuen, helmugara bakarrik helduta eta Lizarrako Migel Mugika bigarrenari 1:09 aterata. Horretaz gain, mendiko saria irabazi zuen eta bere taldea, Quesos Albeniz, izan zen probako onena.

Lasterketan 60 km-ri egin behar izan zioten aurre kadeteek. Hasieran batuta joan zen tropela, baina gero boskote batek ihes egin zuen, tartean Josu Etxeberria zegoela. Bukieran eraso aho zuen iturmendiarraketa helmugara bakarrik iritsi zen (1:33:40). Bere taldekide Hodei Zia 9.a izan zen, Ailetz Lasa 12.a, eta Aralar klubeko Irabia taldeko Imanol Galarza 22.a. Sakana taldeetako gainontzeko txirrindulariei dagokienez, Josu Jaka 26.a sartuz, Ander Rosado 27.a, Unai



Josu Etxeberria, erdian, taldekideekin. Talde onena izan ziren Lakuntzan.

Lizarraga 31.a, Oihan Vinagre 32.a eta Javier Michaus 40.a.

Lakuntzako Nafar Kirol Jolasen kadete mailako azken proba baliagarria zen eta aipatzekoa da Josu Etxeberriak irabazi duela Nafar Kirol Jolasen txapelketa. Bere taldekide Ailetz Lasa hirugarrena sailkatu da. Mendiko sailkapenean, tarteko helmugatan eta taldeko, Quesos Albeniz bigarrena sailkatu da. Agorrilean Josu Etxeberriak Los Arcoseko lasterketa irabazi zuen, bigarrena izan zen Tafallan eta hirugarrena Legarian.

Erbiti Vueltan

Pirinioetan: Espainiako Vuelta Pirinioetan dabil egunotan, Andorran. Erredakzioa ixterakoan atzoko emaitzen faltan, Fabio Aru zen liderra, Purito Rodrigezi 27 segundo aterata. Movistarreko Imanol Erbiti 132.a zen, 1:53:15ra, Valverderendako eta Quintanarendako talde lana egiten. Mikel Landak irabazitako astearteko etapari, Vueltan orain arte eza gututako etapa gogorrenari eutsi zion Erbitik.

Mendi lasterketak

Arantzazu Larrañaga bigarren emakumea Valle de Tena Trailean



Patxi Rubio eta Arantzazu Larrañaga bikain aritu ziren Valle de Tena. UTZITAKOIA

Pirinioetako proba osatzeko (78 km, 6.700 desnibel +) 19 ordu pasa behar izan zituzten Larrañagak eta Rubiok

Asteburuan jokatu zen, Pirinioetan, Valle de Tena Trail gogorra. Probak 78 km zituen, 6.700 metroko desnibel positiboarekin. Panticosatik atera ziren korrikalariak, eta proba osatzeko 32 orduko muga zuten. Besteak beste, korrikalariak Collado Piniecho, Garmo Negro (punturik altuena, 3.064 m), Collado Tebarray, Collado Musales, Collado Foratata eta Mirador Sierra Plana gainditu

behar izan zituzten, paraje zoragarri eta ikusgarrietatik barna, atzera ere Panticosan bukatzeko.

203 korrikalarik hartu zuten irteera eta horietatik 128 iritsi ziren helmugara, Kiko Navarro (13:52:39) buru zela. Arantzazu Larrañaga eta Patxi Rubio uharterrek lan bikaina egin zuten. 19 ordu pasa behar izan zituzten. Arantzazu 56.a iritsi zen helmugara (19:16:15) eta Patxi 59.a (19:16:36). Arantzazu probako bigarren emakumea izan zen, Nerea Martinezen atzetik (17:50:14).

Eneko Aramendia, lehen nafarra Iruñeko Itzulian



Eneko Aramendia, podiumean. Burundako Aramendia, Asier Etxeberria eta Juan Alberto Jimenez asteburu honetan Espainiako Txapelketan ariko dira.

Agorrilaren 4tik 7ra jokatuak XXIX. Iruñeko Itzulian lan bikaina egin zuten juniorrek. Agorrilaren 5ean probako hirugarren etapa hartu zuen Etxarri Aranatzek (83 km). Lasterketa esprintean erabaki zen eta Asesores Navarra taldeko Alejandro Gomiz gailendu zen.

Huesca La Magia taldeko Francisco Galvanek irabazi zuen Itzulia (8:43:06). Quesos Albeniz taldeko Eneko Aramendia laugarren postuan sailkatu zen, probako lehen nafarra, 52 segundora. Iturmendiarrak itzuli bikaina burutu zuen. Bere taldekide Xabier Maiza 37.a izan zen, Juan Alberto Jimenez 44.a, Asier Etxeberria 47.a eta Irabiako Gorka Arbizu 53.a.

Agorrilaren 18an juniorrek Villatuertan jokatuak proban

Quesos Albenizeko Asier Etxeberria bigarrena izan zen eta Eneko Aramendia laugarrena.

Eskolakoak bihar Ziordian

Eskoletako neska-mutikoen agorrilaren 15ean proba izan zuten Lizarran. Ginkanan haurren mailan Irabiako Igor Arrieta eta Aitor Alberdi lehena eta bigarrena izan ziren euren taldekide Sergio Romero laugarrena eta Joana Irastorza zortzigarrena. Kimuetan Burundako Martzel Etxeberria laugarrena izan zen eta Aralar Jon Erdozia zazpigarrena.

Lasterketetan 2. mailako haurren mailan Burundako Unai Villalobos hirugarrena izan zen eta Aralar Urko Gorriti laugarrena. Lehen mailako haurren mailan

Tafalloseko Imanol Garciak irabazi zuen, Burundako Iker Mintegi eta Aralar Jon Erdozia zazpigarrena aurretik. Aralar Igor Arrieta seigarrena izan zen eta Sergio Romero zortzigarrena. 2. mailako kimuetan Burundako Martzel Etxeberria laugarrena sailkatu zen eta Aralar Jon Erdozia zazpigarren. Eta kimuen lehen mailan Burundako Ander Villalobos eta Mikel Unzilla hirugarrena eta laugarrena izan ziren eta Unax Trevejo zazpigarrena. Aralar Aimar Tadeo 8.a sailkatu zen. Bihar, larunbatean, 17:00etan, Ziordian dute proba.

Txalaparta

Taberna

Ospa egunarekin bat!!

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Iñaki Martiarena bosgarrena Nafarroa Oinez lasterketan

Sakandarrak Nafarroa Oinez eta lasterka 2015 proban:


| | | |
|------|------------------------|---------|
| 1. | Jokin Lizeaga | 2:24:58 |
| 5. | Iñaki Martiarena | 2:38:07 |
| 16. | Joxeja Maiza | 2:57:47 |
| 109. | Alberto Anton | 3:39:00 |
| 110. | Alberto Mtz. de Lagran | 3:39:00 |
| 194. | Asier Leiza | 4:10:33 |
| 199. | David Oroz | 4:15:26 |
| 202. | David Mutiloa | 4:17:09 |
| 218. | Erkuden San Martin | 4:31:11 |

Elizondon jokatuak 27 km-ko proban 8 sakandar sailkatu ziren

Igandean Nafarroa Oinez eta lasterka 2015 proba jokatu zen Elizondon. 27 km-ko ibilbide zoragarria izan zen, tartean Aldude mendia

zegoelarik. Lehengo ibilbidea oinez egin behar zutenak abiatu ziren, 7:00etan, 470 lagun guztira. Ibilbidea korrika egin zuten 300 korrikalariak 9:00etan ateraz ziren. Jokin Lizeaga urnietarra izan zen azkarrena (2:24:58). 8 sakandar aritu ziren eta Iñaki Martiarena izan zen azkarrena, helmugara 5. postuan iritsi eta gero (2:38:07).

Agorrilaren 15ean XII. San Roke Igoera jokatu zen Andoainen (6,2 km). Abderrah El Qayed gailendu zen (29:00). Joxeja Maiza etxarriarra 14.a iritsi zen (31:45) eta Maite Zabaleta etxarriarra 75.a (43:10).



Igoera

arraindegia

948 460 111 · Arkuetobide kalea · Etxorri Aronatz

Disko jaurtiketa



Zilarrezko June Kintana

Aire Zabaleko Espainiako Txapelketa absolutuetan bigarrena izan zen bakaikuarra

Agorriaren lehen asteburuan Aire Zabaleko Espainiako Txapelketa absolutuak jokatu ziren. Emakumezkoen disko jaurtiketan June Kintanak lan bikaina egin zuen eta bigarrena sailkatu zen, diskoa 52,55 metrora jaurtikiz eta zilarrezko

domina kolporatuz. Sabina Asenjo izan zen txapelduna (61,36) Orkatilean zaintiratu izan zuen eta oraindik guztiz osatu gabe iritsi zen txapelketara Kintana, beldur pixka batekin "baina azkenean ongi aterata da eta kontentu nago". Agorriaren bigarren asteburuan bakaikuarra Portugalen aritu zen, Leiriako nazioarteko topaketan.

Pista Txirrindularitza

Mazkiaranen eta Aramendiaren dominak

Espainiako Pista Txapelketak jokatu ziren Galapagarren

Galapagarrek Espainiako Pista Txapelketak hartu zituen agorriaren 25etik aurrera. Hodei Mazkiaran elite altsasuarra Euskadiko selekzioarekin lehiatu zen. Keirinean altsasuarrak zilarrezko domina jantzi zuen, Pepe Morenoren atzetik sailkatu eta gero. Banakako abiadura 6.a izan zen.

Kadete mailako emakumezkoetan Maialen Aramendia iturmendiarra lehiatu zen Nafarroako selekzioarekin. Jazarpen proban urrezko domina kolporatu zuen



Maialenek, Melisa Gomizen eta Isabel Martinen aurretik. Emakumezkoen 500 metrotan ere lehena izan zen iturmendiarra. Burunda klubean trebatutako Bakarne Gonzalezek bronzeko domina lortu zuen taldeko abiadura proban, Ane Ollakarizketarekin batera.

Areto futbol

Magna Gurpea Xota, aldaketez beteta

Araça eta Usin itzuli dira taldera eta talde berdeak Yoshikawa jokalaria japoniarra fitxatu du. Saldise Zamoran ariko da, utzita

Magna Gurpea Xota ilusio handiz prestatzen ari da 2015-2016 denboraldia. Taldean aldaketa nabariak daude: Araça eta Usin bueltatu dira eta lehenengo aldiz, taldeak jokalaria japoniar bat izango du: Timoko Yoshikawa. Urte batez arituko da talde berdean, utzita.

Gaur Zaragozaren kontra

Berdeak aurre denboraldian murgilduta dabilta. Lehen partidari Zierbenarekin bina berdindu zuten eta bigarrenaren ere Aspil Vidalek eta talde berdeak bina berdindu zuten. Horretaz gain, Peñiscolaren kontrako partidak irabazi ditu Magnak, 4 eta 3 eta 1 eta 4. Aurre denboraldiko azken

lehian, Magnak D-Link Zaragoza izango du aurkari gaur, Zaragozan.

Bazkide kanpaina martxan

Talde berdeak 2015-2016 denboraldiko 1.500 bazkide izatea nahiko luke. Abian dago bazkideak erakartzeko kanpaina, "Magnetismo verde" lelopean. Helduek 50 euro ordaindu beharko dituzte abonarekin, gazteek (11-18 urte) eta langabetuek 25 euro eta 10 urte arteko haurrak dohain sartuko dira, beti ere heldu baten laguntzarekin. Bestalde, famili abonoa dago.

Javi Saldise Zamorara

Javi Saldise irurtzundarrak 2. mailako Zaragoza taldean jokatu du aurtun, urte baterako utzita. 22 urteko gazteak minutu gehiago jokatzeke aukera izango du.

Botxa



Lucia-Andrea txapeldunak

Irurtzungo Haur Botxa Txapelketan 8 taldek hartu dute parte

Irurtzungo Iratxo elkarteko botxategiak Haur Botxa Txapelketa hartu du udan. Guztira 8 talde lehiatu dira botxan, bi multzotan. Amultzoan ondoko taldeak zeuden: Julen-Iñaki, Lucia-Andrea, Omar-Asier eta Mikel-Pablo, eta B multzoan Aitor-Julen, Iago-Hugo, Iker-

Iñaki eta Ion-Alvaro.

Lehen finalerdian Julenek eta Iñakik 12 eta 6 irabazi zieten Iagori eta Hugori, eta bestean Luciak eta Andreak 12 eta 10 Aitorri eta Juleni. Final handian Luciak eta Andreak 15-5 hartu zituzten menpean Julen eta Iñaki. Aitor eta Julen izan ziren hirugarrenak eta Iago eta Hugo laugarrenak.

Areto futbol

Kaimanak FC, txapelduna



Gazteak beteranoei gailendu zitzaizkien Lakuntzako Parkea Martxan Txapelketako final zirraragarrian. Kaimanak FC eta Los Suaves taldeen arteko final lehiatua hirunako berdinketarekin despeditu zen eta penaltiek erabaki zuten. Finago ibili ziren gazteak eta Kaimanak FC taldeak altxatu zuten txapeldunen trofeo. Bandiduek taldea izan zen hirugarrena eta Burutik Jotak taldea laugarrena. Talde errebelazioaren trofeo

Biltoki neskendako izan zen. Antolakuntzak Asier Zubiria izendatu zuen jokalaria onena eta Jon Goikoetxea atezain onena. Aipatzekoa da txapelketa honetan 8 taldek hartu dutela parte, 15 eta 45 urte arteko 85 jokalaria, guztira. Kiko Amores, Alberto Ormaabal, Mixel Miranda eta Gonzalo Gomez arbitroen lana eskertu zuen antolakuntzak, eta Alberto Martinez antolatzaileak bildutako guztien esker ona jaso zuen.

Futbola

Futbol plazan Lagun Artea eta No To Relax nagusi



Osasuna fundazioak antolatutako 11. 3x3 Futbol Plaza txapelketako saio bat jokatu zen Etxarriko festetan. 8-10 urteko mailan Lakuntzako Lagun Artea taldeak irabazi zuen (Gorka Senar, Egoitz Goñi eta Alain Razkin) eta 11-12 urteko

mailan No To Relax taldeak (Migel Muñoz, Mario Gonzalez eta Martin Garcia). Irabazleek igandean La Morean jokatu final handian aritzeko txartela lortu zuten. Bi finaletan Bianako taldeak gailendu ziren.

Sega

Mazkiaran eta Mitxelena Europako Segatxapelketan

Hego Tirolekoak eta Suitzakoak izan dira nagusi

Azpeitiko Loiolako paraje zoragarrian jokatu zen, asteburuan, Europako Segatxapelketa. Suitza, Austria, Alemania, Eslovenia, Hego Tirol eta Euskal Herriko selekzioak lehiatu ziren, 92 segalari guztira, 61 gizonetako eta 31 emakumezko. Euskal Herriko selekzioan Ainhoa Mazkiaran altsasuarra eta Bixente Mitxelena lehiatu ziren. Zale ugari bildu ziren proba ikusgarria jarraitza eta belardiak paregabeak izan ziren. Hego Tirolekoak eta suitzarrak izan ziren onenak. Gizonezkoetan 10 txanda jokatu ziren eta Hego Tiroleko Georg Spiessek irabazi zuen sailkapen orokorra, bere taldekide Klaus Lanziner eta Reto Fuchs suitzarraren aurretik. Emakumezkoetan bost txanda jokatu ziren eta Suitzako Margrit Fohn izan zen nagusi, bere taldekide Regula Frehner eta Austriako Margit Steinmannen aurretik. Aipatzekoa da Euskal Herriko selekzioek zutela beren egunik onena izan. Inor ez zen podiumera iritsi.

Mendi lasterketak



Guardetxe igoera Katarainendako

Lakuntzako festak hasi baino lehen, Guardetxe Igoera jokatu zen. Guardetxe Igoera makina bat urtetan ospatu izan zen eta probak antzina-ko apustuaren oinarria: Lakuntzatik atera, Aralarako Guardetxerajoa, pareta ukitu eta Lakuntzara jaitea. Baina duela 12 urte distantzia luza eta haren partez Lakuntza-Aralar mendi lasterketa antolatzea erabaki zuen Zabalarte taldeak. Aurreko urtean festetarako proba berreskuratu zuten. Aurtun herriko 11 korrikalarien artean Beñat Katarain izan zen azkarrena, bigarren urtez jarraian, proba ordu baten bueltan osatu eta gero.

Igeriketa

Iñaki Gallego 63.a Hondarribiko igeriketa zeharkaldian

Agorriaren 1ean Hondarribiko igeriketa zeharkaldia jokatu zen, 2.600 metroko distantziakoa. 346 igerilari hartu zuten parte. Luis Goñi (32:13) eta Marina Legasa (34:26) gailendu ziren. Altsasuko Iñaki Gallego triatleta 63.a sailkatu zen, bere kategoriako 21.a (40:45).

Ikastetxera itzulera



Oporrak amaituta ikasgelak haur eta gazteez beteko zaizkigu berriro eta oporretan bizitakoak ikaskide eta lagunei kontatzeko garaia iritsiko da. Baina honekin batera egunerokotasuna dator, heldu zein gazteek oporretangaldutako ohiturak berreskuratu beharko dituzte egun hauean. Ikastetxera itzuliko direla esateko garaia da, lagunekin egongo direla esango diegu, asko ikasiko dutela eta orokorrean hainbat arrazoi emango dizkiegu ikastetxera motibaturik itzultzeko. Ikastetxeko materiala antolatze

garia oso garrantzitsua da haurrek parte hartzea. Liburudendara joaterakoan haiek izan daitezela erosketarako zerrenda egindutak, haiekin batera hurbildu erosketak egitera, horrela ikastetxera motibatuago itzul daitezke. Haiek izango dira material horren erosketetako protagonistak. Ikastetxerako arropa egokia erostea oso garrantzitsua da, arropa egokia eta batez ere haurren mugimenduetarako arropa eroso aukatuko dugu. Hemen ere protagonista izan daitezke, dendako arropa aukeratzeko garaian.

Liburuak eta arropa egokia eskuratu eta osasun onean ikastetxera itzultzea derrigorrezkoa izaten da urtero garai honetan. Sakanan hori guztia bermatzen duten komertzioak badira eta ezagutzera gonbidatu nahi zaituztegu.

Haurrak ikastetxean ongi aritu daitezen, beharrezkoa da noizbehinkako errebisioak egitea, begibistako akatsak aurretik antzeman ditzagun

Haurren garapenean eta hazkuntzan begibistaren osasuna alor garrantzitsua da. Askotan errendimendu eskasa begibista txar bat ez izateak dakar. Ezin dute ikasgai bakoitzaren erri-

mojarraitu, irakasleak arbelean ematen dituen azalpenak ez baitituzte irakurtzen eta honek kontzentrazio eza eta frustazioa eragin diezaieke.

ALDIZKAKO KONTROLAK:

0-2 urte: gurasoek, irakasleek edo pediatrik zeozer antzeman ez gero.
3-4 urte: gurasoek beturrekoak badituzte errebisioa derrigorrezkoa da. Irakurtzen eta idazten hasten direnetik urtean behin errebisioa egitea komeni da.

Nerabetasunean: errebisioak egitea komeni da, aldaketa hormonalak direla eta, graduazioak aldaketak izan ditzake.

ARKATZ LIBURU DENDA

Eskola materialean 30etik gorako erosketetan

%10 eko deskontu-txartela jasoko duzu

Eta tablet baten zozketan parte hartuko duzu

Epea: Irailak 11.

Tel. eta faxa: 948 563 156
San Juan 19 · ALTSASU

PIMPILINPAUSA
HAURREN MODA
0-16 URTE

948 564 452
San Juan 23 · Altsasu

Sakanaoptika
optometria · audiometria · contactologia

Intxostia zeharbidea 10
948 563 124 · Altsasu
www.optikasakana.com

2x1
BETAURREKO GUZTIETAN
progresibo eta eguzkitakoetan barne

%50
-eko deskontua
EGUZKITAKO
BETAURREKOETAN

kaxeta
liburudenda / paperdenda

Zure eskola materiala hemen

Fax Zerbitzua
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477

Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

TXIKITXO
haurren arropa eta lentzeria

948 467308
Ferialeku 2 · ALTSASU

Liburunda Altsasu
liburunda@hotmail.es

Fotokopiak
Koadernatzeak
Plastifikazioak
Eskola materiala eta literatura

DESKONTUAK:
famili ugariak,
enpresek eta
erakunde publikoak

TOTTO

Sakanako banatzaile bakarrak gara

Sakandarren obrak Tangerren ikusgai

Atzotik hilaren 30era arte izanen dira El Minzah hoteleko Ibn Khaldoun galeria-kultur gunean

ARTebide izena hartu zuen 2012an Altsasuko Arte Azoka sustatu zuen taldeak. Hainbat sortzaile sakandarrek bat egin zuten Altsasuko ferietan arteak bere espazioa izan zezan. Iortia kultur guneak hartu zuen erakusketa kolektibo bat izan zen ARTEbide- lanaren fruitua. Ibarreko artisten lanak nagusi ziren, baina kan-

poko artista gonbidatuen lanak ere bazeuden.

Pasa den urtean segida eman zioten. Baina, hasieratik, Sakinatik kanpo zabaltzeko kezka ere bazegoen sortzaile sakandarren artean. Eta Altsasun egonaldiak egiten dituen Carlos Rivera margolari argentinarraren bidez sortu zaie Tangerren erakusketa egiteko aukera. Oraingoan ere, sakandarrak sortzaileekin batera Italia, Brasil, AEB eta Argentinako sortzaileekin izanen dira.



Artista sakandarrak

Beatriz de la Vega, Carlos Rivera, Chuffi, Elena Vera, Estibaliz Garcia, Helena Santano Cid, Itxaso Altzelai, Itziar Nazabal, Jule Costa, Koldo Arnanz, Manolita Thunders, Patricia Paats eta Sagri Mauleon.

Artista gonbidatuak

Agostino Branca, Elena Lopez, Ernesto Luzuriaga, Fernando Teixador, Hartley Ferguson, Linda Pagani, Pilar Pascual, Primavera Cesarini Sforza eta Silvia Bordini.

Altsasuko festetako kartel saridunak



Festetako kartel lehiaketako sariak banatu zituen Altsasuko alkate Javier Ollok aurreko asteartean. Elena Vera altsasuarrak bigarren urtez irabazi du helduen mailako saria (600 euro). Haurren kategorian, berriz, Izaro Agirre Poveda izan da sariduna. Txartel dendaren 60 euroko eskola material lotea jaso du. Bi saridunen kartelak Altsasuko

festetako programaren azalean eta kontrazalean ikus daitezke. Irene Delgado artista gaztearen marrazkia ere programan dago, epaileen aipamen berezia jaso baitu; haurren kategorian aurkeztutako 151 kartelen artean berea nabarmendu du epaimahaiak.

Berrioza; Olatzagutia, Malgrat del Mar (Bartzelona) eta Altsasuko artistek parte hartu dute aur-

tengo lehiaketan. Aurkeztutako 11 karteletatik 3 aukeratu zituen epaimahaiak eta herri bozketaren bitartez Elena Veraren *Festa eztanda!* lanak bozken %50 jaso zituen. *Andy Wen oroimenez* izenburuko lanak bozken %35 jaso zuen eta *Festaz jantzirik* deiturikoak bozken %15. Guztira 108 altsasuarrak parte hartu zuten herri bozketan.

Mugimendua, ailtasuna, kolo-

Epaimahaia:

Helduen kategorian: Yolanda Arnedo, Kiki Asensio, Adela Sanchez eta Olga Madina.

Haurren kategorian: Helena Santano eta Manola Arregi. Altsasuko alkate Javier Ollok lehendakari lanak egin ditu eta Ana Senarrek idazkari lanak.

rea, musika... festa giroa da Elena Veraren kartelak islatzen duena: *Festa eztanda!* Kartela egiteko ilustrazio digitalaren teknika erabili du eta aurten ez du ez kioskoa ez herriko beste elementurik sartu nahi izan. Lehiaketara aurkeztu den bi alditan saria eskuratu du Elena Verak. Pozik dago sariarekin. Artistaren iritziz herri bozketen bitartez erabakitzea ez da egokia, lehiaketa herritarren artea mugatzen delako, haren ustez, epaile aditu batek hartu beharko luke erabakia.

Tarima Beltza Kantabrian

Antzerki talde altsasuarrak bihar Castro Urdialesera joanen da. Estatuko antzerki amateur taldeen arteko trukeen ziklo barruan kokatuta dago biharko emanaldia eta *Nunca fuimos heroes* antzezlan jokatu du Tarima Beltzak Ataulfo Argenta institutuan, 20:30ean.

Jon Barbarinen zuzendaritzapean Mertxe Herrerak, Juan Manuel Herrerok, Marta Diegok, Josu Castillok, Natalia Martinek eta Amaia Mintegik jokatuko dituzte pertsonaiak.

Bono saritua

Pedro Bono altsasuarrak irabazi zuen Jaizko postre lehiaketa. Gozogile altsasuarrak iturburu gatza zuten izpilikutuak postrea aurkeztu zuen lehiaketara eta horrek lehen saria eman zion. Agorriaren 9an Jaitzen ospatu zen gatzaren egunaren barruan ospatu zen lehiaketa.

bazterretik

Aritz Viñas

Walk off the Herat

Gaurkoan Youtuberen bidez fama lortu duen talde bati buruz hitz egin nahiko nuke. Nola lortu du talde honek duen fama Youtuberen bidez? Ez da gauza erraza baina bere bideo ikaragarri landuekin lortu dituzte orain arte dituzten jarraitzaile guztiak.

Bost lagunek osatzen dute Ontarion (Kanada) sortutako talde hau. Ryan Marshall, Gianni Luminati,

Mike Taylor, Joel Cassidy eta Sarah Blackwood-ek bultzada ikaragarria eman zioten euren taldeari youtuben sartzerakoan.

2007an *"Smooth like a stone on a beach"* haien lehenengo diskoa grabatu zuten, eta 2009an *"My rock"* haien bigarren diskoa. Baina haien fama ez zen disko horietatik ailegatu; Youtube plataformaren bitartez "cover" batzuk igotzen hasi zirenean baizik. Bertan artista ezberdinen abestiak igotzen zituzten

baina haien estilora ekarrita. Hori izan zen jendearengan eragina izan zuena, Madonnaren *"Material girl"* edo LMFAO-ren *"Party rock anthem"* ukelele, piano eta pentsaezkin diren perkusio instrumentuekin jotzea izan zen jendearen arreta piztu zuena.

Haien bideoak oso landuak dira eta haien originaltasunagatik daukate arrakasta. Hainbat bideotan tresnak bata besteari pasatzen dizkionte, *"Royals"* abestiaren bideoan

bezala, besteetan, bostak gitarra bakararekin jotzen agertzen dira edota bideo klip landu eta barrugarri batekin osatzen dituzte haien kantak.

Lehenesan bezala haien estiloa oso nabaria da, armonia oso ondo erabiltzen dute eta normalean ikusten ez diren tresnekin jotzen dute. Ukelelea, kajoia eta bongoak dira haien abesti askotan entzuten diren tresna horietako batzuk. Honek originaltasuna eta balio handia ematen

die haien abesti eta bideoei, zerbait berri eta ezberdin bezala agertzen delako.

Abesterakoan ere hainbat ahots ezberdin egiten dituzte eta honek armonikoki ere balio handia ematen die, ahots bakarrean grabatutako abestiak entzutea ohituta gaudelako.

Beraz, talde hau Youtuben jarraitzeko gonbidapena egiten dizuet, bertan haien kanta eta bertsiio berriak igotzen dituztelako.


Aldazen eskutik Mark Tompkinsen ikastaroa

Dantza garaikideko prestakuntza saioa hilaren 21etik 25era izanen da, 10:00etatik 14:00etara, Atarrabiako kultur etxean

Laida Aldaz Arrieta dantzari etxarriarraren ekimena da Sormen Trastelakua eta bere abiapuntua da: "nik izanez nuen aukera eskaini nahi diet etorkizunean Nafarroako dantzariari". Aldazek sortu eta finantzatutako proiektu horren bidez, beraz, Nafarroan dantza garaikidearen hezkuntza zabaldu eta indartu nahi du; "gorputz eta pentsamendukoaz aparte, kultur trukea ere sortu nahi dut". Horretarako, arte eszeniko-

etako profesionali gaur egun dantza garaikidean erreferentziazko diren izen handiko irakasleen eta artisten ondoan entrenatzeko aukera eskaintzen die etxarriarraren proiektuak.

Aldazek Aste Santuan David Zambranoren ikastaroa antolatu zuen. Oraingoan ere aurrekoaren egitura bera izanen dute prestakuntza saioek: astegunez, goizez, ikasleak Mark Tompkinsekin trebatzen ariko dira. Azken saioa, 25ekoa, irekia izanen da, publikoak ikus dezan. Gainera, irakasleak 23an, asteazkenean, 19:00etan Iruñeko Gaiarre antzokian bakar-kako dantza saioa (Witness, Harry



eltrasterocreativo@gmail.com

Izen ematea egin eta informazioa jaso e-posta horren bidez egin daitezke. Matrikulak 155 euro balio ditu eta 24 parte-hartailerendako tokia dago.

Sheppardi omenaldia, 1992) eta hitzaldia eskainiko ditu. Hura ikusteko 6 euro ordaindu behar-ko dira.

Irakasleaz

Mark Tompkins dantzaria, koreografoa, antzerki zuzendaria eta irakaslea da. Tompkins inprobisazioaren eta kontakt-inprobisazioaren erreferenteetako bat da Europan. 1983an I.D.A. konpainia sortu zuen. Identifikatu gabeko objektu performatiboak sortzeko duen modua bere sor-marka bihurtu da. Bakarkakoak, talderako piezak, kontzertuak eta dantza, musika, kantua, testua eta bideoa uztartzen dituzten ikuskizunak. Horiakin 70eko hamarkadan hasi zen eta 1988az geroztik Jean Louis Badet eszenografo eta diseinatzailearen konplizitatearekin segitu du. Inprobisaziorako eta unean bertan konposatzeko pasioak itzal handiko artistekin lan eginarazi dio. Europan mugimendu artistiko askoren sustatzaile izan da: kontakt, inprobisazioa, site-specific.

Ihabar Kabaretak, atzera ere, ateak zabalduko ditu

Gaur, 22:00etan, Ihabarko beheko iturriaren inguruan

Ihabarko antzerki tailerraren zortzigarren muntaiaren izenburua da *Ihabar Cabaret*. Agorriaren 22an eta 23an aktore ihabardarrek emanaldi bana eskaini zuten. Baina jendea obra ezagutzeko gosearekin gelditu da eta antzerki tailerrak emanaldi berria egingen du gaur. Zeremonia maisu batek esketx segida bati emanen dio bidea. Koreografia eta musika asko duen antzezlanak jokatu dute 14 antzezleek.



UTZITAKOA

Zentzugabekeriaren eta sen onaren artean dagoen komedia

Larunbatean, 20:00etan eta 22:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. Bi emanaldietarako sarrerak daude

Gaua. Rafa agertokian. Berrogei urte bete ditu eta bere mundua hausten ari da. Nola egin dezake ihes berak erai-ki duen eta itxuraz hain perfektua den bizitza horretatik? Emaztea, semea eta txalet atxikia lora-tegiarekin. Dena da zoragarria... ala ez? Bisita; gizartearen gezur-reanezin hobeto integratuta dauden bizilagun zentzugabeak. Bestetik, emazteak behin eta berriro errepikatuko dio bere obligazioak bete behar dituela.

Lauk euren bizitzaz hausnartzen hasiko dira, zati onak, ez hain onak eta txarrak mahai gainean jarriz. Amestutako bizitza ez izan arren, egokitu zaiena ere hain txarra ez dela ohartuko dira azkenean. Eta hori guztia, umorea ardatz dutela. Willy Russelek idatzi du *Al final de la carretera* komedia, mundu guztian eman izan dena. Gabriel Olivaresek zuzenduta, Angeles Martin, Marina San Jose, Manu Baqueiro eta Raul Peña dira komedia ezin dibertigarriago eta garratzago horretan agertzen diren aurpegi ezagunak.

Etxarriko Irakurle Taldea ikasturte berria prestatzen

Heldu den ostegunean, 19:00etan, Victoriano Huizi liburutegian dute hitzordua. Irakurriko dituzten euskarazko liburuen zerrenda erabakiko dute orduan

Etxarriko Irakurle Taldeak hirugarren ikasturteari ekimen dio. Irakurzaletasuna duen etxarriar euskaldun taldea da eta edozeinek parte hartu dezake ekimenean. Ikasturteari ekiteko liburu zerrenda osatu behar da eta heldu den ostegunean kideek euren proposamenak eramateko aukera izanen dute. Baina kontuan

hartu behar dute liburutegien sareak eskaintzen duen euskarazko liburuen zerrenda nahiko mugatua dela. Horregatik, eta taldeak bidea egin duelako, liburuak euren kabuz eskuratzeari edo erosteari ere bidea zabalduko diote. Irakurketa kanpainak baliatuko dituzte horretarako.

Aurreko urtean bezala saio bakoitzean taldeko kide bat izanen da liburu taldean aurkezteaz eta saioa bideratzeaz arduratuko dena. Horretarako, hori bai, oinarritzko gida bat izanen dute. Horrela,

denen artean, irakurritakoarekin disfrutatu eta, besteekin komentatuz, aberastu egingen dira.

Egutegia*

Lastailak 29
Abenduak 10
Ilbeltzak 28
Martxoak 10
Apirilak 28
Garagarriak 9

*Ostegunak, 19:00etan, liburutegian.



G

asteko >> : eguraldia

| | ostirala | larunbata | igandea | astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna |
|-----------------|----------------|----------------|----------------|-----------------|-----------------|-----------------|----------|
| euria: 25% | euria: 10% | euria: 5% | euria: 20% | euria: 60% | euria: 28% | euria: 20% | |
| Min: 10 Max: 16 | Min: 8 Max: 18 | Min: 8 Max: 20 | Min: 9 Max: 20 | Min: 10 Max: 21 | Min: 11 Max: 21 | Min: 12 Max: 22 | |

: temperatura>>

| | Max. °C | Min. °C | euria l/m ² |
|------------|---------|---------|------------------------|
| Irurtzun | 35.5 | 10 | 65.8 |
| Etxarri A. | 34 | 7.9 | 48.6 |
| Altsasu | 33 | 9.5 | 54.2 |
| Aralar | 25.5 | 6.6 | 55.3 |
| Urbasa | - | - | - |

: ilargiaren aldia>>

| | ilbehera | ilberri | ilgora | ilbete |
|--|----------|---------|--------|--------|
| | | | | |
| | 5 | 13 | 21 | 28 |

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor
SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

IRAILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri kobazulorako, Donostiako Aquariumerako eta Artium museorako sarre-
rak, Lacturale lotea, Artazako kanpinerako deskontu balea, Gaztezulo aldizkarirako har-
pidetza eta Xotaren partidua ikusteko sarre-
rak.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Donostiako Aquariumerako eta Artium museorako sarre-
rak, Lacturale lotea, Artazako kan-
pinerako deskontu balea, Gaztezulo aldizkarirako har-
pidetza eta Xotaren partidua ikuste-
ko sarre-
rak.

>> 11 galdera

Eder Goicoechea Lopez eta Coro Lopez Galarza

Baratza berezia Iturmendin

Testua: Maialen Huarte Arano



Gurekin udako argazkirik onenak saria du

Guaixe.eus

Sariak

1. saria: Turkiara bidaiak

Aste bat 2 pertsonendako (1.200€-ko balioa)

2. saria: Room escape

2 sarrera (120€-ko balioa)

Argazkiak bidaltzeko azken eguna: irailaren 18a. Oinarriak www.guaixe.eus-en.

1. Zergatik bururatu zitzaizuen ezohiko baratze bat egitea?
Modu berezian hasi ginen fruituak eta barazkiak landatzen. Lurraren arabera, eskatzen duenaren arabera kokapena dute barazki horiek. Erreka ondotik pasatzen da eta horrek lurrari ematen dion gaitasuna ere baliatu nahi genuen, ahalik eta hobekien aprobetxatu inguruan ditugun aukera guztiak.

2. Baratza iritsi orduko, begi erraldoi bat ikus daiteke lurrean marratzurik.
Mundua ikusten du lurrak begi horren bidez. Ama lurra ikusten dugun modua irudikatzen du begi horrek. Begi ninian, sendabelar-
rak hazi dira; horren inguruan koloretako loreek bizipoza islatzen dute; kornea txuri mantendu dugu libre garenaren seinale eta betileak ere irudikatuta daude hosto luzeak dituzten landareen bidez.

3. Zein da asmoa?
Ez dugu asmo finko bat. Gure Ama Lurrak eskaintzen diguna baliatu eta Lurrak berak eskatzen duenaren arabera ekitea da asmoa. Hau da, garaian garaiko uzta landatuko dugu eta garaian garaikoa jan edo erabiliko dugu.

4. Urtebete daramazue lan honetan.
Iazko udan ekin genion lan honi. Ederri asko gustatzen zaio baratzean ibiltzea eta asko ikasten ari da. Alor teorikoa barneratuta, praktikara eramatea izan da asmoa. Baina ez genuen ohiko baratzea sortu nahi. Ahalik eta modu naturalenean landatu eta

jaso nahi genituen fruituak eta barazkiak, eta horretan ari gara.

5. Ezohiko baratzea da, modu tradizionaletik urrundu zaretelako.
Ez ditugu ilaratan landatzen barazkiak eta fruituak. Kiribilez osatu dugu baratza. Begia munda ikusteko baliatu dugun moduan, espiral horiek unibertsoaren sorreraren eta izaeraren erakusle dira. Hamaika kiribil dira guztira, eta elkarren artean komunikatuak daude.

6. Labirinto modukoa hortaz.
Bai, hala ere deskriba daiteke. Halakoetara ohituta ez dagoena, galdu egiten da baratzean barna. Labirintoa da, baina, irekita dago mundura, ez du mugarik.

7. Iltan ez dituzue landatu, espiraletan nola moldatu zarete?
Espirala guztien erdiguneetan sendabelarrik landatu ditugu: kalendula, salbia, melisa, tomilloa, labanda eta hierbaluisa; eta espirala handitzen doan heinean gaintzekoak: tomateak, kalabazak, piperrak, alkatxofak, patatak, tipulak, brokolia, aza, meloiak, sandiak... Denetarik dugu.

8. Garaian garaikoa, eta dagoeneko udazkenari begira jarriak zarete.
Bai. Lehen landaketa handia, ekainaren lehen egun genuen, solstizioarekin batera. Egun berean dena landatu genuen. Ez genekien ongi aterako zitzaigun, baina, hazi guztiek eman dute fruitua. Beste berezitasun bat da, ez dugula baratza behin ere ureztatzen. Eguraldiaren

arabera hazi da guztia. Ez da beharrezkoa izan ur gehiagorik. Lehen esan bezala, errekaaren hezetasuna baliatu dugu, eta ur gehien behar dutenak, errekatik ahalik eta gertuen jartzen saiatu gara.

9. Zuentzako produktuak eskuratzea da xedea?
Oraingoan, lehen urtea denez landatzen eta jasotzen hasi garena, etxean geldituko dira produktu guztiak eta lagunen artean banatzen ari gara. Asmoa, baratzea nola landu eta mantendu gehiago ikasten dugun heinean, modu batean edo bestean saltzea ere izan daiteke. Poliki hasi gara, ikusten zer den lurrak eskaintzeko duena eta guk egin dezakeguna.

10. Ordu asko ematen dituzue baratza zaintzen.
Beti bada zerbait egiteko. Egune-
ro hiru ordu gutxienez ematen ditugu. Oraindik bukatu gabe ditugu garbiketa lan zenbait eta beti jaiotzen da nahi ez dugun landaren bat. Ez dugu produktu kimikorik erabiltzen eta barazkiei intsektuak sartzen bazaizkie, tratamendua naturala da, denbora gehiago behar da tratatzeko.

11. Finean, naturarekin hartu emana filosofia bereziarekin ari zarete egiten.
Bai, ahalik eta modurik naturalenean, kalterik gutxienez sortzen eta ahalik eta errentagarritasun handien ateratzen saiatzen ari gara. Beti ere, asko gozatzen dugulako hau egiten eta ideia polita delako modu tradizionaletik aldentu eta baratze ekologiko berezia sortzea. Kontent gaude lortzen ari garenekin.